Diru-sarreren egoera-orri honetan beste hainbesteko diru-sarrerak lortzetik sortzen dira kredituok:

Estos créditos se generan por la obtención de ingresos por el mismo importe en el siguiente estado de ingresos:

| EGITARAUA<br>*PROGRAMA* | KONTZEPTUA<br>*CONCEPTO* | EUROAK<br>*EUROS* |
|---|---|---|
| 4312 | 380.00 | 1.241.112,02 |

4312 Programaren barruan «Etxebizitza» erabilitako etxebizitza libreko programa berria finantzatzeko erabiliko diru diru-izendapen horiek.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Los fondos se destinarán a financiar el nuevo programa de vivienda usada en el marco del Programa 4312 «Vivienda».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## HERRIZAINGO SAILA

## Zk-4765

190/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua bigarrenez aldatzen duena.

Urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren bitartez (1999/10/28ko EHAA) Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zen, zeina abenduaren 26ko 369/2001 Dekretuaren bitartez aldatu egin baitzen (2001/12/28ko EHAA).

Indarrean dagoen egituraren arabera, Segurtasun Sailburuordetzari atxikitako lan-kontratuko langileen kudeaketa aipatu sailburuordetzaren menpeko zenbait zuzendaritzari esleitzen zaie. Eta 358/1999 Dekretua onartu zenetik hona hartutako esperientziarekin bat, komenigarritzat jotzen da aipatu ohiko kudeaketa arrazionalizatzea, Giza Baliabideen Zuzendaritzari esleituaz, betiere Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkion fun-

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

## N°-4765

DECRETO 190/2003, de 29 de julio, de segunda modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

Mediante Decreto 358/1999 de 19 de octubre (BOPV de 28/10/1999), se estableció la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, que fue parcialmente modificado por el Decreto 369/2001, de 26 de diciembre (BOPV de 28/12/2001).

Conforme a la estructura hoy vigente la gestión ordinaria del personal laboral adscrito a la Viceconsejería de Seguridad se encomienda a las diversas Direcciones dependientes a dicha Viceconsejería. La experiencia demostrada desde la aprobación del Decreto 358/1999 aconseja racionalizar dicha gestión ordinaria encomendándola en conjunto a la Dirección de Recursos Humanos, sin perjuicio de las funciones que co-

tzioei kalterik egin gabe, izan ere, funtzio horiek ez baitira aldatzen.

Herrizaingo sailburuak proposaturik, Lehendakaritzak onarturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko uztailaren 29an egindako bileran, eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekretuaren, hau da, urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren 18. artikuluko hirugarren paragrafoko d) letrakoa aldatu egiten da, zeinak ondorengo idazketa izango baitu aurrerantzean:

«d) Segurtasun Sailburuordetzaren organoei atxikitako lan-kontratuko langileen ohiko kudeaketa egitea; bateragarritasun-espedienteak ebaztea; derrigorrezko erretiroak eta ezintasun fisikoengatikoak aitortzea; diziplina-ahalmenez, kaleratzeko ahalmenaz izan ezik, baliatzea; lizentziak eta baimenak ematea; eta aipatu lan-kontratuko langileen lanpostuen zerrenda proposatzea Zerbitzu Zuzendaritzari. »

***Bigarren artikulua.***– Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekretuaren, hau da, urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren 17. artikuluko laugarren idatz-zatia eta 14. artikuluko lehen idatz-zatiko o) letrakoa kendu egiten dira.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmenak ematen zaizkio Herrizaingo sailburuari.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

rresponden a la Dirección de Servicios, las cuales no son objeto de modificación.

En su virtud a propuesta del Consejero de Interior, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de julio de 2003,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el artículo 18, párrafo tercero, letra d) del Decreto 358/1999, de 19 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, que quedará redactado en los siguientes términos:

«d) La gestión ordinaria del personal laboral adscrito a los órganos de la Viceconsejería de Seguridad y, además, la resolución de los expedientes de compatibilidad, la declaración de las jubilaciones forzosas y por incapacidad física, el ejercicio de las potestades disciplinarias excepto el despido; la concesión de licencias y permisos y, la propuesta a la Dirección de Servicios de las relaciones de puestos de trabajo de dicho personal laboral.»

***Artículo segundo.***– Se suprime la letra o) del apartado primero del artículo 14 y el apartado cuarto del artículo 17 del Decreto 358/1999, de 19 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Interior a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.